

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2015eko URTARRILAREN 22an
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Garbiñe Alaña
Ander Vergara
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita bii, hemeretziak direnean, Udaltzako Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea Josu Artetxe Arana jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta osoko bilkurara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko abenduaren 18an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Iratxe andreak (AB) proposatu du, hurrengo aktetarako, hitz-txandetan udal-langileak aipatzen direnean, izenaren ordezkari euren kargua edo zeregina aipa dadila.

Besterik esan gabe, bertaratutako korporaziokide guztiek aho batez onetsi dute akta (Ander Vergara zinegotzi jauna ez da egon puntu horri buruz bozkatu denean).

2.- Aldatzea, bidezkoa bada, adingabeak Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara bertaratzeagatik Aiarako Udalak familiei ematen dizkien laguntzak araupetzen dituen ordenantza.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako osoko kideek aho batez onetsi dute. (Ander Vergara zinegotzi jauna ez zegoen bertan gaiari buruzko bozketa egin denean).

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udaltzaren ustez, beharrezkoa da aldatzea adingabeak Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara bertaratzeagatik Aiarako Udalak familiei ematen dizkien laguntzak araupetzen dituen ordenantza.

IKUSI DA..- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa Informazio Batzordearen 2015eko urtarrilaren 13ko aldeko irizpena.

Korporazioak, gehiengo osoz, honako hau **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- Honako aldaketa hauek egitea, hasiera batean, adingabeak Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-jardueretara bertaratzeagatik Aiarako Udalak familiei ematen dizkien laguntzak araupetzen dituen ordenantzan:

- Lehenengo artikulua aldatzea. "Araudiaren xedea". Zehazki, **hau esaten duen lekuan:** "(...) eta Aiarako Eskualdea osatzen duten udalek (Amurrio, Laudio, Artziniega eta Okondo) eta

Urduñako, Orozkoko, Gordexolako eta Arrankudiagako udalek eman ditzatela”, **hau esan behar du:** " (...) “eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eman ditzala”.

- Hirugarren artikuluko bigarren paragrafoa aldatzea. Zehazki, **hau esaten duen lekuan:** "(...) eta Aiarako Eskualdea osatzen duten udalek (Amurrio, Laudio, Artziniega eta Okondo) eta Urduñako, Orozkoko, Gordexolako eta Arrankudiagako udalek eman ditzatela”, **hau esan behar du:** " (...) “eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eman ditzala”.
- Zortzigarren artikulua aldatzea; zehazki, **hau esaten duen lekuan:** “Diru-laguntzaren zenbatekoa, gutxienez aldearen % 50ekoa izango da (...)”, **hau esan behar du:** “Diru-laguntzaren zenbatekoa, gutxienez aldearen % 100ekoa izango da (...)”, hau esan behar du:
- Bederatzigarren artikuluko f) letra aldatzea, hau gehitzeko: "(...) edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiarako Udalak haren ordezkari gisa eska dezan administrazio eskudunaren agiria, ziurtatzen duena egunean ordainduta dituela Foru Ogasunaren zergak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak.
- Hamargarren artikulua ezabatzea. (Balorazio irizpideak).

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai egoteko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak. En caso de no presentarse alegaciones a la aprobación inicial, se entendería definitivo el acuerdo inicialmente aprobado, publicándose su texto íntegro en el BOTHA.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

3º.- Aprobación, si procede, de la Primera Certificación diciembre 2014 de la obra "Rehabilitación del edificio multiusos de Luiaondo" por importe de 12.675,28 euros (IVA incluido).

Sin que haya ningún comentario al respecto, se pasa a la votación del asunto que es aprobado por unanimidad de los presentes (el Concejald. Ander Vergara no está presente en la votación de este asunto).

Y en su virtud, y

CONSIDERANDO.- Que por acuerdo de pleno de 17 de noviembre de 2014, se adjudicó a la empresa ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, S.L. el contrato para la ejecución de la obra de “Rehabilitación del Edificio Multiusos de Luiaondo”, por importe de 635.642,68€ y 133.484,96 € correspondientes al IVA.

VISTA.- La 1ª Certificación y factura presentada por la Empresa Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, S.L. que asciende a un total de 12.675,28 euros (IVA incluido).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak igorritako oniritzia.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako 1. ziurtagiria. Guztira 12.675,28 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 12.675,28 euro Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

4.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 532.- Añesko Administrazio Batza.-** Obrarako hirigintza-lizentzia ematea, “Añes – I. fase”-ko ur edangarria banatzeko sarea hobetzeko.
- **Erref.- 533.- Sisca Señalizaciones, SL.-** Esleitzea auzoak seinaleztatzeko eta Menagarai eta Beotegi auzoetako etxeen zenbakiak jartzeko plaken erosketa.
- **Erref.: 534.- EEO.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 535.- Erbiko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Erbiko kontzeju-etxean baldosak jartzeko.
- **Erref.- 536.- Transformaciones Metálicas Ambar, SL.-** Dokumentazio gehiago (irekitzeko lizentzia) eskatzea.
- **Erref.- 537.- P. E., SC.-** Dokumentazio gehiago (irekitzeko lizentzia) eskatzea.
- **Erref.- 538.- Onestea ikastolako komunak eraberritzeko obrarako proiektua eta Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzea.**
- **Erref.- 539/14.- MVE.-** Hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea hastea, egurrezko 18 langara jarri direlako erabilera publikoko bidean, obrarako lizentziarik gabe.
- **Erref.- 540/14.-** Alkatearen 3/2014 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.
- **Erref.- 541/14.- Retes de Llantenoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, putzu septikoa ordeztzeko obrarako proiektua idazteak eragindako gastuetarako.
- **Erref.- 542/14.- Añesko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Añesko edateko uraren banaketa-sarea hobetzeko obrarako proiektua idazteak eragindako gastuetarako.
- **Erref.- 543/14.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, gizarte-zentrora eta kontsultategira doan bidea konpontzeko obrarako proiektua idazteak eragindako gastuetarako.
- **Erref.- 544/14.- Lejarzoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, depositua konpontzeko obra finantzatzeko.
- **Erref.- 545/14.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Quinto eta Peñón bideak konpontzeko obra finantzatzeko.
- **Erref.- 546/14.- Menoioko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Menoioko hilerriko obrak finantzatzeko.
- **Erref.- 547/14.- Costerako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, gizarte-zentrora doan bidea konpontzeko obra finantzatzeko.
- **Erref.- 548/14.- ILU.-** Obrak gelditzeko agintzea. Hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea hasi behar da, blokez egindako hormak altxatzeko lanak exekutatu direlako, zegokien udal-lizentziarik gabe.
- **Erref.- 549/14.- Quesería Izoria, SL.-** Irekitzeko lizentzia ematea, Izorian “*Latxa* arrazako ardi-ustiatagia, gazta egitea eta eztia eraldatzea” jarduerarako.
- **Erref.- 550/14.- Añesko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Añesko goiko auzora doan bidea konpontzeko obrak finantzatzeko.

- **Erref.- 551/14.- Maroñoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, gizarte-zentroaren eta Maroñoko kontzeju-etxeke estalkia konpontzeko obrak finantzatzeko.
- **Erref.- 552/14.- Murgako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Murgako errekaen bi aldeetan enkofratua eta babes-hesia jartzeko obrak finantzatzeko.
- **Erref.- 553/14.- Sojoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Sojoko kioskoaren estalkian erreteila egiteko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 554/14.- Izoriako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, hormigoizko zutabea jartzeko eta haurren parkearen perimetroa ixteko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 555/14.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, udaletxeke plazako eraikin baten estalkia konpontzeko lanak finantzatzeko. Eraikina batzarena da.
- **Erref.- 556/14.- Erbiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, gizarte-zentroko lurzoruan zoladura jartzeko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 557/14.- Retes de Llantenoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Retes de Llantenoko bide bat konpontzeko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 558/14.- Quejana/Kexaako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Kexaako hilerriko kontserbatze-lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 559/14.- Llantenoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Batzaren zenbait bide konpontzeko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 560/14.- Zuhatzako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, **Madalena bidean (Zerrabe auzoa)** zeharkako kanaleta bat exekutatzeko finantzatzeko.
- **Erref.- 561/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Menagarai-Beotegin sakabanatutako baserrietako hondakin-uren zati bateko saneamendurako eta argiteria publikoko lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 562/14.-** Alkatearen 4/2014 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.
- **Erref.- 563/14.-** Obrarako kontratu txikia esleitzea Firmas Alaveses, SAri, Murgako poligonoko bidea konpon dezan.
- **Erref.- 564/14.- Agiñigako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Agiñigako elizaren inguruko bideak hobetzeko, sareak lurperatzeko eta egokitzeke lanak finantzatzeko.
- **Erref.- 565/14.- Udalerriko administrazio-batzak eta Gorobel mendizerrako ermandade ohia.-** Diru-laguntza ordaintzea, Aiarako ehiza-barrutiko lursailak baliatzeagatik (2014. urtea).
- **Erref.- 566/14.- M.D.M.Y.-** Zuatzan haragitarako behi-azienda jarduera irekitzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 567/14.- Menagarai-Beotegi Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea Menagarai-Beotegi gizarte zentroan eraikinaren fatxadak eraberritzeko.
- **Erref.- 568/14.- Murgako Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea Araquioko eta Murgako eliza auzoko bideak konpontzeko.
- **Erref.- 569/14.- Tramame eta Remaisa.-** Obrarako lizentzia ematea eta dokumentazioa zabaltzeko eskaera.
- **Erref.- 570/14.- Onestea F/2014/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 571/14.- Tramame eta Remaisa.-** Batzordeak zehapen espedientea abiaraztea hirigintzako arau-hauste batengatik. Zehazki, alde zurretik udal lizentzia (nahitaezkoa) eman gabe harri-lubeta bat egitea da obren xedea.
- **Erref.- 572/14.- Remai, S.A.-** Zelaiguneko obrak legeztatzeke baimenik ez ematea eta zehapen espedientea abiaraztea.
- **Erref.- 573/14.-** 2014. urtean alkatearen eskuduntzak eskuordetzea.

- **Erref.- 574/14.- E.H.L.-** Obrarako udal lizentzia ematea Izorian dagoen lursailean negutegia jartzeko.
- **Erref.- 575/14.-** Correos, SAri esleitzea posta zerbitzuen kontratua.
- **Erref.- 576/14.- M.A.M.O.-** Obrarako udal lizentzia ematea Murgan dagoen lursailean itxitura jartzeko.
- **Erref.- 577/14.- A.B.I. Luiaondoko Barrena kaleko etxejabeen elkarteko ordezkari gisa.** Obarako udal lizentzia ematea, Luiaondoko Barrena kalean dagoen eraikineko teilatua hainbat jarduketa egiteko.
- **Erref.- 578/14.- M.R.O.O.-** Obrako udal lizentzia ematea estalkia partzialki margotzeko eta Murgako ganadurako pabiloiko sarreran galtzada-harria jartzeko.
- **Erref.- 579/14.- Murgako Administrazio Batza.-** Tramame, SA eta Remai, SA enpresek egiten duten jarduera ikuskatzeko eta kontrolatzeko neurrien eskaerari erantzutea.
- **Erref.- 580/14.- J.M.U.L.-** Hirigintza agindua lehengoratzeko espedientea abiaraztea, itxitura bat lizentziarik gabe egin delako.
- **Erref.- 581/14.-** Diru-laguntza ematea saharar herriari laguntzeko elkarteari “Oporrak bakean-2014” programarako.
- **Erref.- 582/14.- A.O.L.-** Onestea ekoizpen osagarria.
- **Erref.- 583/14.- EUSKAL FONDOA.-** Diru-laguntza ematea Nicaraguako proiektua finantzatzeko.
- **Erref.- 584/14.- R.A.S.-** Esleitzea Arespalditzako bulegoen barnealdeko espazioak eraberritzeko obrak gauzatzeko eta bideratzeko proiektua idazteko kontratua.
- **Erref.- 585/14.- Alkatearen 5/2014 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.**

- **Erref.- 1/15.- 2014ko aurrekontua luzatzea 2015 ekitaldian.**
- **Erref.- 2/15.-** OHri biztanleen udal erroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 3/15.- A.M.C eta San Juan de Dios ospitalearen agindua.-** Hirigintza-agindua lehengoratzeko administrazio espedientea abiaraztea; izan ere, Arespalditzan indusketa eta betelan obrak egitearen ondorioz aldatu da.
- **Erref.- 4/15.- J.S.M.D.-** Hirigintza-agindua lehengoratzeko administrazio espedientea abiaraztea; izan ere, Izorian betelanak egitearen ondorioz aldatu da.
- **Erref.- 5/15.- U.M.A.-** Fidantza eskatu zaio Luiaondon dagoen lursaileko eraikuntzak eraisteko obretan hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- **Erref.- 6/15.-** Onestea barne sustapeneko administrazioko hautapen prozesuan behin betiko onartutakoen zerrenda.
- **Erref.- 7/15.-** Onestea barne sustapeneko administrazioko hautapen prozesuan behin betiko onartutakoen zerrenda.
- **Erref.-8/15.-** Esleitzea Aiara Informática y Comunicaciones, kooperatiba elkarteari informatikako mantentze-lanen zerbitzua.

Iratxe andreak (AB) adierazi du arreta eman diola zehapen prozedurei buruzko dekretu dezente dagoela.

Idazkariak erantzun du espedienteak teknikarien lan erritmoen arabera ebatzen direla. Premiazko zenbait espediente berri daude; horiek geratuta geratzen dira, eta teknikariak denboraz hobeto daudenean, orduan egiten dituzte txostenak. Zehapen espedienteak ofizioz egiten dira, eta ez dago premiazko eperik horiek izapidetzeko.

5.- Norberak lekarkeena.

- Garbiñe andreak (EAJ) Udaleko arkitekto teknikoak eginiko txostenari buruz galdetu du, Etxegoiengo putzuaren obrari dagokionez.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du teknikariarekin hitz egin duela eta horretan diharduela.

- Garbiñe andreak adierazi du isuria baimentzeari buruzko txosten juridikoa eskatu zela.

Josu jaunak erantzun du horren inguruan mugitzen ari dena ikusita, beharbada ez dela gehien komeni dena.

19ak eta 20 minutu direnean, Ander Vergara jauna udalbatza osoan sartu da.

- Iratxe andreak (AB) galdetu du ea nola joan den goizean Alday fundazioarekin egin den bileran.

Josu jaunak erantzun du ondo, Alday fundazioak, pentsatzekoa den bezala, haserre dagoela, espedientean egon den atzerapenagatik, baina ikusarazi zaie errealitatea ez dela erraza izaten ari.

Iratxe andreak galdetu du ea espedientearekin aurrera jarraitzeko aukera ikusi duten.

José Antonio jaunak (EAJ) aipatu du datak zehaztu direla. Otsailaren 4an, bisita bat zehaztu da URArekin eta Kantauriko Urkidetzarekin, eta hori dagoeneko aurrerapena dela. Saiatuko dira arazoa konpontzen inbertsio handirik egin gabe. Garbiketen maiztasuna aldatuko da.

Josu jaunak esan du fosak zaintzeko protokoloa beharrezkoa ote den izan dutela hizpide.

- Iratxe andreak adierazi du ea Gorobel mendilerroan Burgosko itxituren kontuari buruz hitz egin den Marisolekin, berau jarri zenetik urtebete igaro baino lehen egin behar zen idazkia aurkezteko.

Josu jaunak erantzun du gai horren inguruan gainera hitz egin duela Marisolekin, baina horretan ari direla.

- Josu jaunak esan du Aiara eta Amurrioren artean, Etxegoienen, mugaketa prozedurari buruzko epaia iritsi berri dela. Epaia Amurriori eman dio arrazoia, eta ez dute zigorrik ezarri kostuetan. Itxura batean Aiarak zaila du, epaileak Geografia Institutu Nazionalaren txostenak hartu dituelako oinarri. Josuk jarraitzeko esan du J. E. jaunarekin hitz egiteko ezintasuna ikusita, J. A. andreari jakinarazi diola Josune andrearekin (Amurrioko alkatea) hitz egin nahi duela, ikusteko ea aukerarik dagoen Amurriok atzera egiteko.

Garbiñe andreak adierazi du Udalak epaitegietan apelatu behar duela, zaila izango delako Amurrioko alkateak ez defendatzea bere lurraldeko mugak, bertako teknikariaren txostenari eta epaiari jarraikiz. Adierazi du bere ustez onena dela errekurtsua jartzea, Amurrioko alkatearekin hitz egiten den edo ez gorabehera.

Iratxe andreak esan du ados dagoela epe igaro baino lehen errekurtsua jartzearekin.

Josu jaunak esan du errekurtsua jarriko duela, baina, hala ere, saiatuko dela J. I. andrearekin hitz egiten.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita bian.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.